



TOLOSAKO UDALAREN ETA URKIZU AUZOKO ALURTXIKI ELKARTEAREN ARTEKO HITZARMENA, AUZOKO ESKOLA PUBLIKOKO IKASLEEI ESKOLA GARRAIO PUBLIKOA EZ DUTENEAN LAGUNTZEKO.

Tolosan, 2014ko irailaren 23an.

Alde batetik, Ibai Iriarte San Vicente, Tolosako Alkate-Lehendakaria, 72.487.486 L, NAN zenbakia duena.

Besterik, Iñaki Iraola Gorostidi, Tolosako URKIZU auzoko ALUR TXIKI AUZO ELKARTEAREN izenean, 44.162.518-B NAN zenbakia duena.

Nire aurrean, Jose Luis Unanue Ugalde, Tolosako Udaleko idazkaria.

Bi aldeek hitzarmen hau gauzatzeko nahiko lege gaitasuna eta ahalorde askietsia badituztela aitortzen diote elkarri.

ADIERAZTEN DUTE

Lehena.- URKIZU AUZOKO hainbat ikasleek ez dute iraileko eta ekaineko egun guztietan eta ikasturte osoko asteazken eta ostiraletan eskolatik bueltatzeko garraio zerbitzu publikorik.

Bigarrena.- Lehen adierazitakoaren ondorioetarako, ALURTXIKI AUZO ELKARTEAK eskaera aurkeztu du 2014/2015 ikasturteko eskola garraio zerbitzu bereziak antolatzeke proposamena Udalean, erakunde honek konpromisoa har dezan hura laguntzeko.

Hirugarrena.- Udalak beharrezkotzat jotzen duela eskola publikoko garraio zerbitzua bermatzea eta garraio zerbitzu berezi hauek laguntzea.

Laugarrena.- Horregatik guztiagatik, bi aldeek hitzarmen hau formalizatzen dutela, hurrengo klausula hauekin.

KLAUSULAK

LEHENA.- Tolosako Udalak konpromiso hauek hartzen ditu:

- 1.- Eskola publikorako bermatzen ez den garraio zerbitzuak laguntzea.
- 2.- Alur-Txiki auzo elkarteari 1.267,20 euroko dirulaguntza ematea (90 bidai x 14,08 €) auzoko ikasleei eskola garraio zerbitzuko laguntza kudeatzeko.



3.- Ordainketa bi zatitan egingo da, bata irailean (irailetik abendura arteko epean izandako gastuetarako), eta bestea ekainean (urtarriletik ekainera arteko epean izandako gastuetarako).

2014/2015 ikasturtean banaketa hau izango da:

Lehenengo ordainketa: 577,28 €.

Bigarren ordainketa: 689,92 €.

Zerbitzua eman den egunen arabera, gastu-ajustea ekainean egingo da.

BIGARRENA.- ALUR TXIKI auzo elkarteak ikasturtean konpromiso hauek hartzen ditu:

1.- Jasotzen duen dirulaguntza eskola garraio zerbitzu berezia kudeatzeko izango da.

2.- Ikasturte hasieran, dirulaguntza jasotzeko ondorengo dokumentuak aurkeztu beharko dizkio Udalari:

- Onuradunen zerrenda (behin behinekoa)
- Garraio zerbitzu bereziaren antolaketa eta egutegia
- Garraio zerbitzu bereziaren aurrekontua
- Gizarte Segurantza eta Ogasuneko ziurtagiriak.

3.- Ikasturte bukaeran, dirulaguntza zuritzeko, ondorengo dokumentuak aurkeztu beharko dizkio Udalari:

- Onuradunen zerrenda (behin betikoa)
- Garraio zerbitzu bereziaren antolaketa eta egutegia
- Garraio zerbitzu bereziaren fakturak
- Gastu eta diru-sarreraren likidazioa.
- Gizarte Segurantza eta Ogasuneko ziurtagiriak.

HIRUGARRENA: Hitzarmen honek izaera administratiboa du eta bere edukiaren interpretazioa AlurTxiki eta Udalak osatuta duten auzoko gaiak lantzeko Segimendu Batzordeari dagokio.

LAUGARRENA: Hitzarmen hau sinatzen den egunean sartuko da indarrean eta urtebeteko iraupena izango du. Halere, urtebeteko luzapenak egin ahal izango dira, nahi hori idatziko agirian formalizatuta. Luzapen hauek urtean urteko beharretara egokituak izango dira.



TOLOSAKO
UDALA

Hitzartutako guztia jasota gera dadin, hitzarmen honen hiru ale sinatzen dira, hasieran aipatutako toki eta egunean.

Iñaki Iraola Gorostidi
Alur Txiki auzo elkartearen Lehendakaria

Ibai Iriarte San Vicente J.
Alkatea

Nire aurrean
IDAZKARIA



TOLOSAKO
UDALA